

Liburuak

kritika

Huntza hezur berritan.
Juan Ramon Makuso.
Erein.
80 orrialde. 9 euro.

Helduen literatura
Igor Estankona



Hormetatik gora

FELIPE JUARISTIK, liburuko hitzaurrean, Makuso “pentsalari poeta” dela dio. Ez da definizio txarra poesiari buruzko gogoeta eta gogoeten poesia egiten duenarentzat. Makusok badaki poesia ez dela agortu, eta oraindik balio duela barruak askatzeko. Bestalde, badaki lirika ez dela gizakiari lagun egiten dion adonu hutsa, ezta beroaldi bat edo olgeta bat ere. Heideggerren eskolakoa da Makuso, eta serio hartzen du lanbidea. Zentzu horretan, poesia eta filosofiaren uztarketa sentimental baten bila dabil.

Poesiaren eta filosofiaren mugetako diskurtso eta tonuarekin, beraz, pentsalariaren sakontasuna espresio-bide poetikoetara makurtzen ahalegindu da. Mundua eta giza natura poetizatzea, hori da bere antsia metafisikoa. Poesiak erreala ez dena deskribatzen duela uste dutenentzat irakurgai harrigarria gerta daiteke hau, eta filosofia serioa dela uste dutenentzat samurtasun lezio bat izan daiteke. Makusok bere beldur eta dudak agertzen ditu liburu honetan, eta baita etsipenaren gainditzeari buruzko gogotak ere. *Huntza hezur berritan* unibertso pertsonal baten agerpena da, giza unibertsoaren azalpen modura. Poema osoenak eta ederrinak, ordea, ez dira etsipenezkoak, ezpada baikortasuna darienak. Bietatik dauka liburuak, bietatik edaten du Makusok, baina era positiboan hitz egiten digunean jotzen du goia.

Halabeharrez, ausartak galtzen diren eremuetan galtzen da idazlea: esan ezin dena esateko ahaleginean. Errenteriarraren hirugarren poema liburu hau pausatuagoa eta monotonoagoa da aurreko biak baino, baina pausu bat harago dagoela iruditu zaigu. *Bizitzeak hil egiten du* (Beta, 2004) eta *Hiri gorazarre* (Elea, 2006) bilaketa izan baziren, kausitu du idazleak bere hiria, huntzak jana. Hiri hori pentsamenduz egina dago, eta baita ametssez ere. Horregatik, pentsamendu sistematikotik poesiarako hainbat ate dauzka, irakurleak zeharkatu beharrekoak.

Poemak arintasunez idatziak eta pisu gabekoak maite ditugunontzat *Huntza hezur berritan* lan zurruna da. Poesiaren bidez pentsamendura iristea da idazlearen obsesioa, eta jakin arren helburua zaila dela, hizkuntzaren mugetan galtzeko arriskua bere egiten du. Pultsu poetikoa falta zaie poema batzuei —nahiz eta ikaragarriro lirikoak izan—. Astuntasun honen iturburua erritmoan dago, atentzioa eta gozotasuna estali egiten baititu kontzeptuaren loditasunak. Baina esan dugu lehenago ere: poesiari buruzko gogoeta da, eta gogoen poesia. **n**

Hika ikasteko metodoa plazaratu du Urruxulegik

Jon Urruxulegi euskalgintzaren alorrean lan ugari egindakoa da: euskara irakasle izandakoa, *Zeruko* ARGIAko kolaboratzaile ere bai, idazle gisa saiakera eta nobela landu ditu. Bere eskutik sortuak zituen *Sinonimoen kutxa* eta *Euskal sufijazioaren kutxa* lanak. Oraingotan berriz, hika hitz egiten ikasteko metodoa-



Hi! Hika ikasteko metodoa.
Jon Urruxulegi.
Txertoa.
125 orrialde.
9,45 euro.

rekin datorkigu. Txertoa argitaletxearen bidez kaleratu duen liburu honek hitanoa menperatu nahi duenari bidea leuntzea du helburu. Horretarako, eduki teoriko batzuez gain —alor gramatikoa, aditz-taulak eta antzekoak— hainbat ariketa-testu bildu ditu Urruxulegik, baita lexikoari buruzko oharrik eta interesezko bibliografia ere. Interesa badun/k, badakin/k! **y**

Leizarragaren *Kalendrera*, berrargitaratua

1571. urtean lehenengo aldiz argitaratu zutenetik urte asko joan da, baina oraindik jatorrizko edizioaren faksimila argitaratu gabe zegoen. Horregatik Euskaltzaindiak beharrezko ikusi du Joanes Leizarraga Beraskoizkoaren *Kalendraren* edizio berri hau mundu guztiaren esku jartzea. Esan bezala, egutegiaren faksimila bildu dute edizio berri honetan, Parisko Bibliotekak utzita; baita Xabier Kintanaren testu bat ere, lau hizkuntzataraz itzulia. Lehenbiziko euskal egutegi hau ez da, jakina denez, Leizarragaren obrarik ezagunena. Apaiz kalvinistak *Iesu Christ gure Iaunaren Testamentu Berria* du ekarpen garrantzitsuenak.

Alabaina, bere laburrean, lan honek lekukotasun-balio handia dauka. **y**



Kalendrera.
Joanes Leizarraga.
Euskaltzaindia.
119 orrialde.
9,50 euro.